

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MOREDA ARABAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea**

Moreda Arabako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2021eko errolda behin-behineko onetsi ondoren, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, udal idazkaritzan, iragarki hau iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa martxoaren 1etik apirilaren 30era izango da, biak barne.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Moreda Arabako Udalean izapidetuko direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarguak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2021eko urtarrilaren 27a

*Alkatea*

**MIGUEL ÁNGEL BUJANDA FERNÁNDEZ**